

## **Basque - Emazteok Liburu Santuek - Wives Scriptures**

**Efesoarrei 5:22-24 Emazteak izan daitezela beren senarren menpeko, Jaunaren menpeko bezala, 23 senarra emaztearen buru baita, Kristo Elizaren buru den bezala, bere gorputza duen Elizaren salbatzaile delarik. 24 Eliza Kristoren menpeko den bezala, izan bitez emazteak ere denetan senarren menpeko.**

**Efesoarrei 5:31,33 Horregatik, gizasemeak bere aita-amak utziko ditu eta emazteari elkartuko zaio, eta biak bat izango dira. 33 Dena dela, zuetariko bakoitzak maita beza emaztea bere burua bezala, eta emazteak izan biezaio begirune senarrari.**

**1 Korintoarrei 7:3 Eman biezaio senarrak emazteari zor diona, eta berdin emazteak senarrari.**

**1 Korintoarrei 7:34 eta bere baitan zatitua dago. Emakume ezkongabea eta neskatxa Jaunaren gauzez kezkatzen dira, eta beroni gorputz-arimaz emanak bizi dira; ezkondua, berriz, munduko gauzez, bere senarrari atsegin nola emango.**

**Kolosarrei 3:18 Emazteok, izan senarren menpeko, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala.**

**1 Timoteori 2:11-15 Emakumeak isilik eta mendetasun osoz entzun behar du irakaspena. 12 Ez dut ontzat ematen emakumeak jendaurrean irakastea, ezta gizasemeari agintzea ere: egon bedi isilik. 13 Zeren Jainkoak Adam egin baitzuen lehenengo, eta gero Eva. 14 Eta liluratua ez zen Adam izan; emakumea izan zen liluratua eta Jainkoaren agindua hautsi zuena. 15 Baina bere amatasunaren bidez salbatuko da, sinesmenean, maitasunean eta santutasunean eratsu irauten badu.**

**Hasiera 3:16 Emakumeari esan zion: «Haurdun gelditzean, oinazeak ugalduko dizkizut eta saminez izango dituzu haurrak; irritsak senarrarengana bultzatuko zaitu, eta hura izango duzu nagusi».**

**1 Pedro 3:1,2 Zuek ere, emazteok, izan zaitzte zeuen senarren menpeko; horrela, horietakoren batzuek salbamen-mezua onartzen ez badute ere, emazteen jokabideak, eta ez hitzek, salbamenerako irabaz ditzan, 2 zuen jokabide garbi eta errespetuzkoa ikusteak, alegia.**

**Titori 2:1-5 Ni, Paulo, Jainkoaren zerbitzari eta Jesu Kristoren apostolu naiz, Jainkoak hautatuak sinesmenera ekartzeko eta betiko biziaren itxaropenean oinarritzen den egiazko erlijioaren egia ezagutarazteko. Gezurrik ez dioen Jainkoak mundua izaten hasi baino lehen agindua zuen betiko bizi hori, eta, berak ezarritako garaia iristean, bere mezua agerrarazi du Jainko gure Salbatzailearen aginduz gomendatu zaidan predikuaren bitartez. Zuri idazten dizut, Tito, fede berean egiazko seme zaitudan horri. Jainko Aitak eta Jesu Kristo gure Salbatzaileak eman biezazkizute grazia eta bakea. Arrazoi honengatik utzi zaitut Kretan, konpondu gabe gelditu dena konpon dezazun; batez ere, hiri bakoitzean**

**elkarte-arduradunak ezar ditzazun, eman dizkizudan argibideen arabera.**

**Esaera Zaharrak 12:4 Emazte jatorra senarraren koroa, emazte lotsagabea minbiziaren parekoa.**

**Esaera Zaharrak 14:1 Emakume zuhurrak eraiki egiten du etxea, zentzugabeak bere eskuez desegin.**

**Esaera Zaharrak 19:13 Seme zentzugabea aitaren zoritxarra, emazte liskartia etengabeko itogina.**

**Esaera Zaharrak 21:9,19 Hobe sabaian bizi, baztertxo batean, emakume liskartiarekin etxe berean baino. 19 Hobe basamortuan bizi emakume liskarti eta petralarekin baino.**

**Esaera Zaharrak 25:24 Hobe sabaian bizi, baztertxo batean, emakume liskartiarekin etxe berean baino.**

**Esaera Zaharrak 27:15,16 Etengabeko itogina eurite-egunean eta emakume liskartia antzerakoak dira; 16 halakoari eustea haizeari eustea eta eskuaz olio hartzea bezala da.**

**Esaera Zaharrak 31:10-31 Nork aurkituko etxeoandre jatorra? Koralek baino askoz gehiago balio du. 11 Konfiantza osoa du senarrak harengan, ez da sekula beharrean aurkituko. 12 Zoriona ekartzen dio, eta ez zoritxarra, bizitzako egun guztietan. 13 Artilea eta lihoa eskuratzen ditu, gogotsu lan egiten haren eskuek. 14 Merkataritza-ontziak bezalaxe, urrutitik ekartzen ditu hornigaiak. 15 Egunsentia baino lehen jaikitzen da, etxeoen jatorduak prestatu eta zerbitzariei aginduak emateko. 16 Lursaila ikuskatu eta erosi egiten du, bere lanaren emaitzaz mahastia landatzen. 17 Kementsu prestatzen da lanerako, ez zaizkio inoiz besoak nekatzen. 18 Bere tratuen onuraz arduratzen da, gauez ere ez du kriseilua itzaltzen. 19 Eskuaz goruari heltzen dio eta atzamarrez ardatzari eragiten. 20 Dohakabeari eskua zabaltzen dio eta behartsuari laguntza ematen. 21 Elurtean, ez da etxeoengatik beldur, guztiak baitaude ongi jantziak. 22 Ohe-estalkiak egiten ditu, liho eta purpurazko jantzi ederrak. 23 Ongi ikusia da senarra batzarrean, herriko arduradunen artean esertzen denean. 24 Jantziak eta gerrikoak egin eta merkatariei saltzen dizkie. 25 Indarrez eta duintasunez horniturik, irribarretsu dago etorkizunaren aurrean. 26 Zuhurtziaz hitz egiten du eta onginahiz beteriko irakaspina ematen. 27 Etxeko burubideaz arduratzen da, ez du bere ogia merezi gabe jaten. 28 Zorionak ematen dizkiote seme-alabek, senarrak honela goraiatzen du: 29 «Asko dira emakume jatorrak, baina zuk ez duzu parekorik!» 30 Gezurrezkoa da xarma, hutsala edertasuna; goresgarria, ordea, Jauna errespetatzen duen emakumea. 31 Kanta iezaiozue bere lanarengatik, goretsi herri osoaren aurrean berak eginarengatik.**